

## Kilometroen eredu berria

# KONTSUMITZAILE IZATETIK, PARTE-HARTZAILE IZATERA

Urriaren 7an Kilometroak jaia ospatuko dute Urretxu eta Zumarragan. Baina jai eredu hori gaur egungo testuingurura egokitu nahi dute ikastoletako kideek, eta dagoeneko iragarri dute 2020. urterako Kilometroen eredua goitik behera aldatuko dela. Herritarrak kontsumitzaile soil izan ordez parte-hartzaile izan daitezela, trantsizio hori dute helburu.



**Andoni Mikelarena**

@Andonimik

ARGAZKIAK: URRETXU ZUMARRAGAKO IKASTOLA

“Jaiak komunitatea sortzeko guneak dira, gizarteak dituen arauak apurtu eta pertsonen artean arau berriak ezarzen direlako”. Jean Jacques Rousseau pentsalariaren hitzekin hasi du solasaldia Mikel Egibar Gipuzkoako Ikastolen jaiaren koordinatzaileak. Ondoan du Igor Elortza, hamahiru urtez Kilometroen koordinatzailea izandakoa. Biak aritu dira jai eredu berria erditu duen hausnarketa gidatzen. Hiru urteko prozesua izan da eta Gipuzkoako ikastola guztietako ordezkariak eta ehunka norbanakok hartu dute parte. Hamar premisatan laburtu dituzte hausnarketa prozesuaren ondorioak eta Elortzaren hitzetan, “eskaintzak premisa horiei erantzungo die”. Hala ere, oraindik ez dakite zehatz-mehatz zein ekintza antolatuko dituzten.

1977an egin zen lehenengo Kilometroak jaia, eta ordutik jendarte asko aldatu dela diote. Festak garaiaren arabera funtzio ezberdinak bete ohi ditu. Has tapenetan “sistemaren mugak gaingintu eta jai baten bidez komunitate berri bat martxan jarri zen, euskararen, ikastolen eta hezkuntzaren inguruan eraikia”, azaldu du Egibarrek. 42 urte geroago, ordea, “gizartea aldatu bada ere jai ereduak berdina izaten jarraitzen du”.

Koordinatzailearen hitzetan, premisa hori ez da bakarrik ikastolen jaietan ematen. Euskal Herrian oro har jai ereduak birpentsatu behar dela uste dute biek, gogoetak gainontzeko jaiak ere eragiten diela. “Paradigma berri bat” sortu nahi dute, “parte-hartzean, kooperazioan, jarduera kolektiboan eta onura sozialean” oinarrituko den jai eredu. Beti ere “gure



nortasuna” plazaratuz, “herriko plazak harrobi kultural” bilakatuta.

### Hausnarketa

“Oso ona izan da, baina berriz ez”. Ber garako Ikastolako zuzendariaren hitzak dira. Jaia amaitu eta horiexek izan ziren bururatutako zitaizkion lehen hitzak, horrela kontatu zuen martxoan eredu berria aurkezteko Zumarragan egin zuten ekitaldian. Urtero, behin jaia pasata balorazioa egin ohi dute; Elortzaren esanetan, “balorazioa positiboa izan ohi da, ikuspegi ekonomikoari, antolakuntzari...” dagokionean, baina beti egon ohi da “baina” bat. “Ze jai mota daukagu? Ez al gara gure izaeratik urruntzen ari? Ereduaren gaineko kezka agerikoa zen”.

Egibarrek koordinazioa hartu zue-nean, hausnarketa garatu ahal izateko



metodoa jarri zuen mahai gainean eta prozesuan zehar bi kontzeptu sarritan aipatu zirela dio Elortzak, “kontsumoa eta parte-hartzea”. Horra eredu berriaren erronka, herritarrak “kontsumitzaile izatetik, parte-hartzaile izatera igarotzea”.

“Jaiaren testuingurua bete-betean murgildu da sistema neoliberalaren barruan eta horrek arautegi eta funtzionamendu komertzialak lotura eta harreman konkretu batzuk izatera darama, jendearen parte-hartzea kontsumo materialera murriztuz”, dio Egibarrek. Eredu berriari, parte hartzeko esparru gehiago zabaldu nahi dituzte. Erronka jarri dute adibide gisa. 2013an abiatu zen aurreneko aldiz eta “gazteen artean arrakastatsua” da. Tolosako Ikastolak sortu zuen ekimena

» “Paradigma berri bat” sortu nahi dute, “parte-hartzean, kooperazioan, jarduera kolektiboan eta onura sozialean” oinarrituko den jai eredu. Beti ere “gure nortasuna” plazaratuz, “herriko plazak harrobi kultural” bilakatuta



*Ogitarteko eta pintxo  
bero zein hotzetan  
espezializatua*

Enbeltran kalea, 6  
20003 Donostia  
☎ 943 427 405



**Urretxu-Zumarragako  
Udal Euskaltegia**

Maila guztiak  
Aurrez aurreko taldeak  
eta autoikaskuntza  
Diru laguntzak

**UZUE**  
**KILOMETROAK 2018rekin bat**

Labeaga 40A, Urretxu  
Tel.: 943 723 310 / 628 811 062  
euskaltegia@uzue.eus

eta Elortzak azpimarratu duenez, “eredua aldatzeko nahia behetik gora etorri da”.

### 29 ikastola, 29 plaza

Kilometroak urriaren aurreneko ateburuan mantenduko da. Bere indarra eta tamaina ordea urtean zehar egiten diren beste jaialdien arabera izango da. Orain arte ez bezala, hemendik aurrera herrialdeko ikastola guztiak hartuko baitute parte antolakuntzan. Urriko asteburuaren aurretik lau zapabost jaialdi egingo dira herrialdeko plazetan, eta Gipuzkoako ikastola guztiak arduratuko dira horiek antolatzeaz. “Gipuzkoan 29 ikastola daude eta beraz 29 plaza sortu nahi ditugu”, dio Egibarrek.

Aisialdi eredia ere aldatuko dute. “Oholtza, txosna eta kontzertu trinomiotik atera eta harrobi kulturala bultzatuko dugu”. Ikasleak, irakasleak eta gurasoak, guztiak izango dira sortzaileak. Orain arte ikusi ohi genuen kontzertu erraldoien formatua beraz amaitu egingo da, “ez gara tamainarekin obsesionatuko”, argitu du Elortzak. Neurriak ere eredu masifikatua elika-

» “Oholtza, txosna eta kontzertu trinomiotik atera eta harrobi kulturala bultzatuko dugu”. Ikasleak, irakasleak eta gurasoak, guztiak izango dira sortzaileak. Orain arte ikusi ohi genuen kontzertu erraldoien formatua beraz amaitu egingo da, “ez gara tamainarekin obsesionatuko”

tzera eraman dituela uste dute, horregatik “mamiak izango du garrantzia” aurrerantzean.

Ezin ahaztu ordea Kilometroen helburuen artean xede ekonomikoa ere badela. “Sostengu ekonomikoa lortzeko bide berriak topatu nahian gabilta, sostengu ekonomikoa biltzeak ez dezan eragin gure balioak alboratzea”, azaldu digu Elortzak. “Gure esparrua hezkuntza da”, eta zutabe horri eusteko antolatzen da jaiak. “Eredu pedagogikoa eta jaiak uzartu” behar direla nabarmendu dute eta ildo horretan ludikotasunari buelta bat eman diote. “Ludikotasunak ezin du soilik jolasean oinarritu”, dio Egibarrek, eta beraz Erronkaren eredia ere berrikusi dute. 2020an, “sorkuntzarako gunea, eztabaidarako txokoa eta bestelako txokoak” ere martxan jarri nahi dituzte.

Urtero 1.500 eta 2.000 boluntario artean aritu ohi dira lanean Kilometroak aurrera atera ahal izateko. Horren garrantziaz jakitun, “komunitate hori elikatzen eta indartzen” jarraitu nahi dute ikastolen mugimenduko kideek, horixe baita ikastolek duten “altxor preziatuenetakoa”. Boluntario horiei “parte

### BA AL DAUKAZU EDO IZAN DUZU INOIZ HIPOTEKARIK?



BA AL DAKIZU BANKETXEAK  
KOB RATU ZIKIZUN  
HIPOTEKA FORMALIZATZEKO  
GASTUAK

(NOTARIA, GESTORIA, INSKRIPZIOA...)

**BERRESKURATU**  
DITZAKEZULA ORAIN?

KONTSULTA DOAN

M  
MENDIZABAL  
ABOKATUA

Goieritar guztien zerbitzura

Tel: 682 464 060 ZUMARRAGA E-mail: mendizabalabokatua@gmail.com

www.mendizabalabokatua.com



ERBI  
BUS

MICROBUS EGOKITUAK 19 plazatik 43 plazetara  
Txangoak, bodak, bidaiak, sagardotegiak...

Egiburuberri poligonoa 13, 0V lokala  
Orereta - Erreterria

Tel: 943 008 579 - 656 704 021

www.erbibus.com / info@erbibus.com



## “ZUBIAK BATUZ” IKASGELA BARRUAN ERE

Eredu pedagogikoan aldaketa nabarmenak egin dituzte azken urteetan Urretxu Zumarragako Ikastolan. Aniztasunaren kudeaketa gakoa dela uste dute, eta ikasle bakoitzak bere gaitasunak ahalik eta gehien garatu ahal izateko metodologia berriak jarri dituzte martxan.

Hirugarren aldiz ospatuko dute Kilo metroak Urretxu Zumarragan. “Zubiak Batuz” lelopean, bi herrien arteko lotura estutzeaz harago herriko komunitate eta identitate anitzen artean zubiak eraiki nahi dituzte. Jaia bera ikastolako eredu pedagogikoaren isla izatea nahi dute, “jai inklusiboa”. Horretarako, aldaketak egin dituzte zenbait gunetan, Erronkan eta herri kiroletan kasu. Orain arte egon ez diren guneak ere jarriko dituzte.

### **Ikastola inklusiboa**

Ikastolak plan estrategikoaren barruan du aniztasunaren trataera, inklusioaren ikuspegitik. Ikastolaren ekosisteman da goen aniztasuna zaindu eta “ingurukoak errespetatuz, norberaren gaitasunak ahalik eta gehien garatzea” dute helburu. Horretarako metodologia berriak jarri dituzte martxan.

“Aniztasuna modu integralean” ulertu behar dela dio Eli Altolagirre orientatzaileak. “Aniztasuna ez da bakarrik kultura desberdinetako familiak izatea”, adimen eta gaitasun ezberdineko ikasleak ere

aniztasunaren isla dira, adibidez. Ezinbestekoa da beraz ikasle bakoitzaren errealitatek abiatuta bere gaitasunak garatu ahal izateko tresna egokiak eskaintzea. Hor kokatzen du irakaslearen ardura Altolagirrek. “Irakasleak bidelaguna izan behar du”, tresnak eskaintzen dituena.

Aniztasun hori kudeatzerako orduan, orientazio departamentuak garrantzi berezia du. Irakasleak zerbait berezia igaritzen badu, berehala orientazio departamentuarekin jarri ohi da harremanetan. Ikaslea gelatik atera beharrean, orientatzaileak sartu ohi dira gelara. “Lehen integrazio fisikoa egiten zen, orain aldiz integrazio integrala”, dio Altolagirrek.

### **Ikasketa kooperatiboa**

Ikasle bakoitzaren gaitasunak ahalik eta gehien garatu asmoz, ikasketa kooperatiboa jarri dute martxan. Hezkuntza prozesua ikasle bakoitzaren interes eta motibazioetara egokitu behar dela uste du Altolagirrek eta beraz, programazioa ikasgelaka antolatu ohi dute.

Ikasketa kooperatiboa garatzeko, ikasleak taldeka banatu ohi dira. Talde horiek hiru hilabeteko iraupena izan ohi dute eta taldearen barruan ikasle bakoitzaren rola aldatu egiten da. “Ikasleek elkar laguntzen dute”, bakoitzak bere gaitasunak eta jakintza ondokoaren esku jarritz, lankidetzat bultzatzea helburu. “Denok daukagu gaitasu-

na zerbaitetan aritzeko, kontua bakoitzari bere aukera eskaintzea da” azaldu du.

“Ikasle bakoitzaren funtzioak oso argi banatzen dira taldearen barruan”, eta ikasleak elkarren artean oso zorrotzak izan ohi dira. Proiektuetan buru-belarri inplikatzeko dira, eta “autonomia maila oso altua lortu ohi dute”.

Eredu hau martxan jartzeko irakasleen formakuntza gakoa izan da. Javier Bahon irakasle eta pedagogoren laguntza izan dute horretarako. “Denok ilusio handia dugu proiektuarekin eta irakasleen belaraldi aldaketak aukera berriak zabaltzen dizkigu” uste du Altolagirrek. Gurasoek ere formakuntza saioak jaso dituzte, eta saio horietan zalantza ugari planteatu dituztela azaldu du orientatzaileak.

### **Konfiantzaren pedagogia**

Haur Hezkuntzan, konfiantzaren pedagogia abiatu dute, espazio irekiak hobetsiz. Ikasle bakoitzak bere interesen arabera garatu ohi du ikasketa prozesua. “Konfiantzaren pedagogia oso dinamikoa da, ikasleak etengabe esperimintzateko aukera baitute”, argitu du Altolagirrek. Lortzen ari diren emaitzekin “oso gustura” daude, bai irakasleak, bai gurasoak.

Jaia bezala, ikasketa eredu ere gaur egungo testuingurura egokitzen ari dira Urretxu Zumarragako Ikastolan. Ikasgela barruan zein kanpoan identitate anitzen artean zubiak batuz.

**UZTARRI  
JATETXEA**

janari  
tradizionala



© 943 148 321 · Aizarnazabal  
www.uztarrijatetxea.com

**URPA**  
autobusak

22, 28, 31, 55 eta 60  
plazakoak

Autobus literadunak  
Europar zehar ibiltzeko



Ubilluts auzoa · 55. poligonoa · 9. eraikina · 4  
Andoain (Gipuzkoa) · Tel.: 943 305 050  
www.autocaresurpa.com · info@autocaresurpa.com

**Intxausti**  
harategia · urdaitegia

**Juan Martin Intxausti**

Grupo La Salve, 33  
Azpeitia (Gipuzkoa)  
© 943 810 489 / 687 527 664

**IBAROLA BEHEKOA  
BASERRIA**

LAURGAIN AUZOA · 20809 AIA  
PAGOETAKO NATURA PARKEA  
© 943 83 45 49 / 659 21 53 92  
ibarrolabekoa@hotmail.com  
www.ibarrolabekoa.com




hartzeko beste bide batzuk” ere eskaini nahi dizkiete.

“2025ean ez dakigu nolako eredia izango dugun” dio Elortzak, eredu berria ez baita “betirako” izango. Gakoa “eten-gabeko doikuntza” dela diote, beti ere abiapuntu gisa hausnarketa prozesuan erditutako premisak hartuta. “Kilometroak premisa horien baitan eta premisa horiek betetzeko antolatu behar dugu”.

#### Hamar premisak

1) Ikastolen mugimenduaren misioaren isla izan behar du jaiak. 2) Ikastolen Elkarteak sendotzeko (mugimendu-korporazio bezala) balio behar du. 3) Ikastolen Jaiak nori zuzentzen zaion argitu: Ikastolen komunitatea sendotu. 4) Kontsumoa murriztu; parte-hartzea areagotu. Ludikotasunaren bitartez aurrez aurreko harremanak sendotu. 5) Naziotasuna indartu. 6) Misioren arabera jaiaren xede ekonomiko-errentagarria birkokatu. 7) Ikastolen aldeko jai eguna

urte osoko prozesuaren emaitza izatea. 8) Jai(en) formatua(k): berritzailea, garaikidea, eraldatzailea. 9) Jaiaren dimentsioa birkokatu. 10) Ikasleak ahaldundu.

#### Euskal Herri osoa xede

Kilometroak Gipuzkoan antolatzen bada ere, Euskal Herriko beste herrialdeetako ikastolen parte-hartzea bultzatuko dute aurrerantzean. Naziotasuna indartu nahi dute, eta horretarako leku guztietako herritarren artean harremanak sortzea garrantzitsua dela uste dute. Ikastolen mugimenduak bost jai antolatu ohi ditu urtero eta guztiak eraldaketa prozesuan badaude ere, “bakoitzak bere erritmoa eta errealitatea” dituela azpimarratu dute Gipuzkoako arduradunek, nahiz eta ziur dauden “egunen batean guztiek bat” egingo dutela. “Kontzientzia piztu nahi dute” jaiaren bidez, “euskararen erabilera, parte-hartze eredia eta osasuna” alorretan, besteak beste. ■